

GIZARTE

Ekonomia





EKONOMIA

1. Guk nola egiten ditugu ekonomia-jarduerak?

Zerbait kontsumitzen dugunean diruaren truke, ekonomia jarduera egiten ari gara.

Adb: gauzak erostean, ibilgailu publikoak erabiltzean, gauzak konpondu...



2. Zer dira oinarrizko beharrak? Adibideak eman.

Bizi-irauteko (sobrevivir) behar ditugun beharrak dira. Horiek gabe hil egingo ginateke: elikatzea, jatea eta bizitzeko leku bat izate.

3. Zeintzuk eta zer dira bigarren mailako beharrak?

Bizi-irauteko hain garrantzitsuak edo beharrezkoak ez diren beharrak: hezte, komunikatzea, batetik bestera joatea, aisialdiaz gozatzea...

4. Zer lortzen dira beharrak asetzeko?

Beharrak asetzeko (saciar las necesidades) ondasun materialak (bienes materiales) eta zerbitzuak lortzen dira. Hauen ekoizpena eta kontsumoa bere batan daude.

5. Zer da ekoizpena? Eta kontsumoa?

Ekoizpena ondasun materialak eta zerbitzuak produzitzean/sortzean datza. Kontsumoa, aldiz, ondasun material eta zerbitzu horiek kontsumitzean/erabiltzean datza.



6. Zergatik esaten da denok kontsumitzaileak garela?

Etengabe gauzak kontsumitzen/gastatzen gaudelako: materiala, janaria, ura, argia...



7. Zeintzuk dira eragile ekonomikoak?

Enpresak, familiak eta Estatua dira hiru eragile ekonomiko nagusiak.

8. Zer dira zergak (impuestos)? Nork ezartzen ditu?

Estatuak enpresen jokabidea eta familien kontsumoa kontrolatzeko jartzen dituen arauak dira.

9. Zeintzuk dira ekoizpen-faktoreak?

Ekonomia-jardueran ekoizpen-faktorea natura-baliabideak, lana eta kapitala dira.



10. Zer da lana?

Gizakiek ondasunak eta zerbitzuak lortzeko egiten duten esfortzu fisikoa eta intelektuala.



11. Zer dira natura-baliabideak?

Ekonomiaren aldetik, naturatik hartzen diren elementu erabilgarriak dira.

12. Zer da kapitala?

Diru eta ondasunen multzoa da: gauzak materialak, dirua eta teknologia.





LEHEN SEKTOREA



1. Zer da lehen sektorea?

Natura baliabideetatik elikagaiak, materialak eta lehengaiak zuzenean lortzea.

2. Zeintzuk dira naturako baliabideak?

Harriak, erliebea eta lurzorua; argia, aire eta ura; eta landaredia eta fauna.

3. Abeltzaintza, arrantza eta arrain-hazkuntzak zer ustiatzen dute?

Hauek animalia-jatorriko natura-baliabideak ustiatzen dituzte.

4. Zer da mekanizazioa?

Jarduerak egiteko gizakiaren eskua erabili beharrean, makinak erabiltzean datza.

5. Zer da baxurako arrantza eta alturako arrantzaren arteko desberdintasunak?

Baxurako arrantza ontzi txikiak erabiltzen dira kostaldetik hurbil, sakonera txikiko uretan, arrantzatzen dutelako eta alturako arrantzan, ordea, kostaldetik urrun dauden, sakonera handiko uretan, arrantzatzen dute ontzi handiekin.



6. Zer ustiatzen du meatzaritzak?

Meategiak (minerías) ustiatzen ditu mineralak eta harriak lortzeko.



7. Zer da meatzaritza?

Meatzaritza, mineralak eta harriak lortzean datza.



8. Zergatik esaten da mineral asko energia asko energia iturriak direla? Eta arriskuan daudela?

Energia iturriak energia sortzeko gai diren naturako-elementuak dira eta mineralak energia sortzeko gai dira. Mineralek presio konkretu bat jasatean dardara egin eta energia sortzen dute. Mineralak gehiegi ustiatzen badira arriskuan daude, oso astiro birsortzen direlako eta agortu daitezkeelako.

9. Zer ustiatzen dute nekazaritzak eta basogintzak?

Nekazaritzak eta basogintzak landare-baliabideak ustiatzen dituzte lurzorua eta uraren laguntzaz.

10. Zer da nekazaritza?

Nekazaritza, elikagaiak eta lehengaiak ekoizteko lurra lantzeari deritzo.

11. Zertarako erabiltzen dira makinak nekazaritzan eta basogintzan?

Jarduera hauetan makinak erabiltzen dira ekoizpena handitzeko: denbora laburragoan ekoizpen handiagoa ateratzen delako eta lana errazten dutelako.

12. Nolakoa da Espainian lehen sektorea?

Nekazaritza-ustiapena oso modernoa eta mekanizatua da.





BIGARREN SEKTOREA



1. Zer egiten du bigarren sektorea?

Lehengaiak produktu erdilandu edo landu bihurtzen ditu.

2. Zer diferentzia dago produktu erdilandu eta landuen artea?

Produktu erdilanduek eraldaketa (transformación) gehiago behar izango dituzte eta landuak, berriz, kontsumorako prest daude.

3. Zer jarduera sartzen dira bigarren sektorean?

Eskulangintza, industria, energiaren eraldaketa eta eraikuntza.



4. E.B.-K zer eskaintzen die bere kideei?

Ekonomia-, lan- eta segurtasun-arloko abantailak eskaintzen dizkie herrialde, enpresa eta langileei.

5. Zeintzuk dira E.B.-ko ezaugarriak?

Merkatu zabala eta inbertitzaile asko dauzkala; garraio-sare handia duela; segurtasuna eskaintzen duela bere politika eta ekonomian; eta bertako langileak eskulan espezializatua direla.

6. Zergatik bigarren sektorea, batez ere industria, garapen bidean dauden herrialdeetara hedatu da?

Zerga eta ingurumen kontrol gutxiago daudelako eta gastuak eta soldatak ere baxuagoak direlako. Gainera, eraikuntza-enpresek merkatu berriak bilatzen dituzte herrialde horietan.



7. Zer da deslokalizazioa?

E.B.-ko enpresak beste herrialde batzuetan garatzea eta lana bertara eramatea.

8. Zer nahi dute garapen teknologiko handiagoko enpresek?

Europar Batasuneko kideen berezko segurtasuna eta eskulan gaitua.

9. Non biltzen dira industria gehienak?

Kostaldean eta hiri handietan biltzen dira.

10. Non biltzen dira industria gehienak?

Kostaldean eta hiri handietan biltzen dira.

11. Emakumeek eta gizonek berdin kobratzen al dute? Zergatik?

Emakumeek gizonek baino soldata txikiagoa kobratzen dute industrian lan berdina egiteagatik. Arrazoia lan-baldintza berdinak ez dituztelako eta oraindik, arlo honetan, berdintasuna lortu ez delako.





HIRUGARREN SEKTOREA

1. Zer egiten du hirugarren sektoreak?

Zerbitzuak eskaini.



2. Zeren mende dago sektore hau?

Enpresek, kontsumitzaileek eta herri-administrazioek gasta dezaketen diruaren mende.

3. Zergatik dago garatuagoa hirugarren sektorea herrialde aberatsetan?

Diru gehiago gastatzen delako herrialde hauetan.

4. Zer esan dezakezu hirugarren sektoreari buruz Espainian?

Enplegu eta diru gehien ekoizten duena dela eta langileen %65ak hirugarren sektorean lan egiten duela.

5. Zeintzuk dira hirugarren sektoreko jarduerak?

Merkataritza, banaketa, pertsona eta enpresentzako zerbitzuak eta herri administrazioak emandako zerbitzuak.

6. Zertan datza merkataritza, salerosketa eta banaketa?

Merkataritza produktuen salerosketan datza, eta produktu horiek leku batetik bestera eramateari banaketa deritzo.



7. Nondik iristen zaizkigu, gaur egun, salgaiak?

Lehorretik (kamioiak, furgonetak...) itsasotik (merkataritza-itsasontziak) eta airetik (merkataritza-hegazkinak)

8. Zeri eske da eraginkorra merkataritza-banaketa Espainian?

Tren-sareari, autobiei, portuei eta aireportuei esker.



9. Zer diferentzia dago saltoki txiki eta handiaren artean?

Saltoki txikiak bizitegi-eremuetan kokatua daudela eta produktu bakar batean espezializatua direla eta saltoki handiak, ordea, urrun egoten dira kokatuta eta produktu-mota ugari saltzen dituztela.

10. Zer diferentzia dago nazioarteko eta barne-merkataritzaren artean?

Nazioarteko merkataritza beste herrialdeen artean egiten dela, eta barne-merkataritza, aldiz, herrialdearen barruan egiten dela.

11. Zer zerbitzu ematen da Espainian herritarren beharrak asetzeko?

Telekomunikazioak, garraioak, konponketak, prestakuntza eta turismo-zerbitzuak.

12. Zer zerbitzu ematen dizkiete enpresa askok negozio eta saltokiei?

Teknologiaren, bankuaren, publizitatearen eta ikerketaren arloko zerbitzuak.




Lehen sektorea



Hirugarren sektorea

EKONOMIA



Bigarren sektorea